




DONOSTIAKO UDALAREN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERA IV. PLANAREN

2020 **EBALUAKETA**
2024



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad



AURKEZPENA

2020ko urriaren 20an Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana onartu zen Tokiko Gobernu-Batzarrean. 2020-2024 eperako indarraldia du Planak, eta 4 esku-hartze ardatz eta 8 proiektu-emaitzetan dago antolatuta. Ardatz bakoitzean aurreko planetan bultzatutako neurriak jaso dira baita ere, hau da, Udalaren dinamikan txertatuta daudenak eta bultzatzen zein lantzen jarraitu behar direnak.

ESKU HARTZE ARDATZAK	PROIEKTU-EMAITZAK	+ TXERTATUTAKO NEURRIAK
GOBERNU ONA	1. AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK 2. IKUSPEGI INTERSEKZIONALA 3. PLANAREN IRAUNKORTASUNA	
EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	4. EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA 5. DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA	
INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	6. ERABATEKO PREBENTZIOA 7. ERREPARAZIO INTEGRALA	
EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO	8. KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK	

Planak, proiektu horietako bakoitzari lotutako helburu-azpiproiektuak eta neurriak zehazten ditu. Urtero, urte horretan landuko diren neurriak prestatzen dira, eta horiek garatzeko ekintza zehatzak finkatzen dira.

2020ko urritik 2021eko abendura Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planaren ezarpenaren jarraipenak agerian utzi zuen ezinezkoa zela Plana behar bezala garatuko zela bermatzea, esleituta zeuden langileak (pertsona kopurua eta hauen profilak) eta baliabide ekonomikoak aintzat hartuta. Testuinguru hori kontuan izanik, hainbat esku-hartze lehenetsi, zenbait proiektu eta neurri errealtate berria egokiagoa izan arte atzeratu, eta beste batzuen esku-hartze maila murriztu da. Hurrengo orrialdeetan neurri horiek AN (atzeratutako neurriak) eta MN (murriztutako neurriak) marka daramate, atzeratu/murriztu diren neurriak direla ikusarazteko. Langileen urritasun-egoera hori ez da aldatu hurrengo urteetan, eta, beraz, edukien lehenespenari eutsi zaio.

Dokumentu honek egikaritzearen, emaitzen eta prozesuaren ebaluazioa jasotzen du, proiektuz proiektu, eta, amaitzeko, azken atal bat, gogoeta eta ondorio nagusiekin, Donostiako Udalaren hurrengo Berdintasunerako Planaren diseinua eraikitzeko.

● METODOLOGIA

4

● PROIEKTUEN ARABERAKO EBALUAZIOA

5

- 1. PROIEKTU-EMAITZA: AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK
- 2. PROIEKTU-EMAITZA: IKUSPEGI INTERSEKZIONALA
- 3. PROIEKTU-EMAITZA: PLANAREN IRAUNKORTASUNA
- 4. PROIEKTU-EMAITZA: EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA
- 5. PROIEKTU-EMAITZA: DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA
- 6. PROIEKTU-EMAITZA: ERABATEKO PREBENTZIOA
- 7. PROIEKTU-EMAITZA: ERREPARAZIO INTEGRALA
- 8. PROIEKTU-EMAITZA: KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK

● ONDORIOAK

34



METODOLOGIA

Berdintasunerako IV. Plana 2024ko azken hilabeteetan ebaluatu da. Jarraian, garatutako sekuentzia metodologikoa jasotzen da.

- Urtero egindako jarraipen-txostenen **gauzatze-datuak eta -adierazleak landu eta finkatu** dira.
- Ahal izan den neurrian, emaitzen adierazleak osatzeko behar den **informazioa identifikatu eta jaso** da.
- **Berdintasun teknikariekin hainbat lan-saio** garatu dira, adierazleen kontraste eta analisia egiteko eta prozesuari buruzko ebaluaketa hasteko. Haien esperientzia jaso da eta gainerako eragileengandik ezagutzeko gakoak identifikatu dira.
- **Berdintasun batzordea** osatzen duten solaskideekin lan-saioak antolatu dira, prozesua baloratzeko, emaitzak identifikatzeko eta V. Planerako lehengo ideiak jasotzeko.

IV. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna informatiko egokirik ez izateak baldintzatu egin du, eta horrek eskuragarri dagoen informazioa mugatu du. 2020/21 jarraipena egiten Midenet tresna IV. Planaren sistematizazio eta jarraipen beharretara egokitzen ez zela ikusi zen. Beraz, baliabide pertsonal gehiago izan arte eta tresna informatikoa Planaren jarraipenera ez egokitu arte, tresna hau ez erabiltzea erabaki zen. Hortaz, Berdintasun Unitatearen eta beste sailen informazioa excelen bitartez jaso da, urteak ixterakoan.



PROIEKTUEN ARABERAKO EBALUAZIOA

IV Planaren proiektu bakoitzerako honako hauek aztertzen dira hurrengo orrietan:

- **Abordatzeko kronograma.** Proiektuan jasotako neurriak zein urteetan gauzatu diren jasotzen da.
- **Abordatze-tasa.** Planaren neurrien burutze maila neurtzen duen adierazlea, bukatutako neurriei edo abian daudenei erreferentzia egiten diena.
- **Funtsezko neurriak.** Planaren ezarpenean interesgarrienak izan diren neurriak eta ekintzak nabarmendu dira.
- **Neurriak ez jorratzeko arrazoiak.** Hala badagokio, Planak proiektu honetarako aurreikusten zituen neurri batzuk ez garatzearen arrazoiak jaso dira.
- **Emaitza-adierazleak.** Planak bere diseinuan emaitza-adierazle batzuk jasotzen zituen proiektu bakoitzeko. Horri buruzko informazioa dagoen kasuetan, dagokion balioa jaso da.
- **Emaitza nagusiak.** Balorazio kualitatiboago batetik, lortutako emaitza nagusiak nabarmendu dira.
- **Zailtasunak, ikaskuntzak eta identifikatutako beharrak.** Proiektu hau ezartzeko prozesuari buruzko iritziz nagusiak jaso dira.

1. PROIEKTU-EMAITZA: AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK

Proiektu honek 11 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 11 neurrietatik, 9 neurri garatu dira (%82).

AZPIPROIEKTUAK	NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
BERDINTASUNA, ERABAKIAK HARTZEKO ALDAGAI BAT	1.1. Proposamen metodologikoa egin udal arlo, enpresa eta erakundeek dituzten berdintasunerako ekintza estrategikoenak kudeaketa planean nola sartu lantzeko. (AN)				
	1.2. Zerbitzu-gutunetan genero-ikuspegia txertatzea. (AN)				
	1.3. Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasuna indartzea. (MN)				
	1.4. Udaleko Planetan berdintasun ikuspegia txertatzea. (MN)				
	1.5. Kontratazio publikoan sartutako berdintasun klausulen betetze mailaren jarraipena egitea. (MN)				
AURREKONTUEN ANALISIA, GENERO IKUSPEGITIK	1.6. Aurrekontu programa gehiago aztertzea, genero ikuspegitik.				
	1.7. Partida moreen gauzatzearen kontrola hobetzea.				
	1.8. Kudeaketa-planetan jasotako berdintasunerako ekintzak aurrekontuan sartu diren aztertzea.				
	1.9. Aurrekontuko diru-sarrerak aztertzen hastea. (AN)				
	1.10. Aurrekontu-programak aztertzean hautemandako desberdinkeriak gainditzeko neurriak proposatzea.				
BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO GIZA BALIABIDEEN POLITIKA	1.11. Berdintasunerako barne plan berria garatzea. (MN)				

ABORDATZE-TASA	%82
----------------	-----

NABARMENDUTAKO NEURRIAK	- Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko proiektuarekin aurrera egin da, programa gehiago aztertzen eta analisisan sakontzen. - HAPOn genero ikuspegia zeharka txertatzea. - Hirigintza Jasangarriko Mugikortasun Planean genero-ikuspegitik funtsezkoak diren 2 estrategia sartu dira: oinezkoen mugikortasunerako estrategia eta dibertsitate funtzionalerako estrategia. - Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa eguneratzea.
-------------------------	---

JORRATU GABEKO NEURRIAK. ARRAZOIAK	1.8. neurria ez da garatu, Kudeaketa Planak ez direlako udalean aurreikusita zegoen bezain beste bultzatu izan. Gainera, lan metodologia ez da oso egokia genero ikuspegia txertatzeko. 1.9 neurriaren kasuan, aurrekontu-proiektuaren erritmoak beste epe batzuk markatu dituelako eta oraindik ez da erronka horri aurre egin.
------------------------------------	---

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA	LORTUTAKO BALIOA
• Gobernu Planean sartu diren berdintasunerako ekintza estrategikoen %a	• %80	• %30
• Berdintasunerako ekintza estrategikoak kudeaketa planean sartu dituzten udal arlo, enpresa eta erakundeen %a	• %80	• %30
• Genero-ikuspegia txertatu duten zerbitzu-gutunen %a	• %100	• %100
• Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasunezko proiektu eta emakumeek aurkeztutako proiektuen arrakasta-tasa erlatiboa	• 1,0	• Ez da ezagutzen
• Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasunezko proiektuen %a	• %10,0	• Ez da ezagutzen

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA	LORTUTAKO BALIOA
• Aurrekontua duten berdintasun ekintzen gogobetetze mailaren %a	• %90	• %85
• Partida moreak dauzkaten udal arlo, enpresa eta erakundeen %a	• %60	• %60
• Gastu eraldatzailearen %a	• %1	• 0,81%
• Berdintasunerako barne planaren betetze mailaren %a	• %80	• Ez dago daturik
• Lan eskaintza publikoetan emakumeen sarrera	• %40- 60	• Ez dago daturik
• Udal langileen gogobetetze maila erakundearekin emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, sexuaren arabera bereizita (inkesta).	• 7 (0tik 10era bitarteko eskala)	• Emakumeak (6,54); gizonak (6,8); ez-bitarrak (8,5)

EMAITZA NAGUSIAK	• Barne Berdintasun Planaren proiektua martxan jartzea. • Aurrekontu partehartzaileetan aukeratu diren proiektu gehienak zaintzari lotuta daude. • Partida moreei esker, berdintasun ekintza asko bultzatu dituzte proiektuan parte hartzen dute sailek. • Gastu eraldatzailearen zabalkundea eta etengabeko igoera.
------------------	---

ZAILTASUNAK

- Kudeaketa Planaren metodologia ez da egokitzen berdintasun beharretara.
- Departamentu bakoitzak erantzukizuna hartzea.
- Udalak ez dauka lana sistematizatua.
- Solaskideei zaila egiten zaie aurrekontuen proiektuaren edukiak bere lankideei azaltzea.

IKASITAKOA

- Proiektu hauen ardura Pertsonen Kudeaketa, Finantza eta Lehendakaritza zuzendaritzek bere gain hartzearen garrantzia.
- Garrantzitsua da oreka egotea kanpo-gastura bideratutako aurrekontuaren eta barne-taldea indartzera bideratutakoaren artean.
- Gastu sentsiblea zaindu behar da. Gastu eraldatzaileak ez du sentsiblea ordezkatu behar.

IDENTIFIKATUTAKO BEHARRAK

- Sistematizazio- eta zeharkakotasun-egiturak
- Udalak datuak modu sistematikoan jasotzeko tresna bat beharko litzateke.
- Partida moreez gain, gastu esanguratsuari garrantzia eman. Aurrekontuarekin indartu eta genero-ikuspegia txertatzen dela bermatu klausulak prestakuntza eta abarrekin.
- Aurrekontuak genero ikuspegitik proiektuaren inguruko barne prestakuntza.

2. PROIEKTU-EMAITZA: IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

Proiektu honek 8 neurri jasotzen zituen, bi azpiproiektutan sailkatuta. 8 neurrietatik, bat bakarrik garatu da (%12,5). Adierazi den bezala, hau da 2020ko eta 2021eko jarraipena egitean **atzeratzea erabaki den proiektuetako bat**, baliabide ekonomiko eta pertsonalen egoera kontuan hartuta. Hala ere, proiektu honen esparruan, eta giza eskubideen bulegotik, hiru neurri bultzatu dira LGTBI+ politikari dagokienez. Hauek kontuan izanda, abordatze tasa %36,6ra igotzen da. Kultura-aniztasunak LGTBI politikak ere landu ditu errefuxiatuen inguruko proiektu batean Eusko Jaurlaritzarekin batera.

AZPIPROIEKTUAK	NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
INTERSEKZIONALITATEA DEFINITZEA	2.1. Interseksionalitatezko esperientziak identifikatzea. (AN)				
	2.2. Interseksionalitateari dagokionez, zein aldagai landuko diren erabakitzea. (AN)				
	2.3. Martxan dauden zenbait proiektu identifikatzea eta interseksionalitatearen ikuspegia txertatzea. (AN)				
	2.4. Interseksionalitatearen garrantzia eta onurak zabaltzea eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileak trebatzea. (AN)				
	2.5. IV Plana berrikustea, aldagai hauek kontuan izanda. (AN)				
EZ-BITARRAREN LAUKIA	2.6. Zein dokumentu, estatistika eta ikerketan sartu den identifikatzea. (AN)				
	2.7. Ez-bitarraren laukia sartzearen ondorioak: onurak, zailtasunak... identifikatzea. (AN)				
	2.8. Txosten bat egin irizpide teknikoak luzatuz. (AN)				
LGTBI+ POLITIKAK	2.9. Donostiako LGTBI+ errealitateei buruzko ikerketa egitea.				
	2.10. LGTBI+ fobiarekin lotuta izandako intzidentziei buruzko txostena egitea.				
	2.11. LGTBI+ fobiari buruzko sentsibilizazioa.				

ABORDATZE-TASA	%36,6				
NABARMENDUTAKO NEURRIAK	- Kategoria ezberdinak (generoa, sexu aniztasuna, kultura aniztasuna, hizkuntza, adina) gurutzatzen dituzten prestakuntzak. - Gazteriak 2024an gaiari buruz egindako jardunaldia.				
JORRATU GABEKO NEURRIAK. ARRAZOIAK	2.1, 2.2, 2.3, 2.5, 2.6, 2.7. eta 2.8 ez dira garatu, baliabide ekonomiko eta pertsonalen faltagatik				
EMAITZEN ADIERAZLEAK			HELMUGA BALIOA	LORTUTAKO BALIOA	
Donostiako Udalan interseksionalitatea lantzeko irizpideak izan			BAI	EZ	
Donostiako Udalan ez-bitarraren laukia sartzeko irizpideak izan			BAI	EZ	
EMAITZA NAGUSIAK					
Interseksionalitatearen inguruko hausnarketa eta ikasketa egiten hasi da.					
ZAILTASUNAK	- Konplexutasun handiko gaia da, garapen metodologiko txikia duena. - Diagnostikoan aurrerapausoak ematen dira, baina ez dira estrategiak garatzen.	IKASITAKOAK	Martxan jarritako formakuntzak jasotzearen metodologia oso aberasgarria izan da.	IDENTIFIKATUTAKO BEHARRAK	- Zein proiektutan edo esparruetan landuko den zehaztea. Adibidez: - LGTBI+ plana izatea - WC-aldagelak - Zeharka lantzeko egiturak eta metodologiak sortzea. - Bilketan, baina, batez ere, datuen analisisan, hirugarren laukiaren gaia lantzeko premia.

3. PROIEKTU-EMAITZA: PLANAREN IRAUNKORTASUNA

Proiektu honek 6 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 6 neurrietatik, denbora honetan, 3 garatu dira (%50).

AZPIPROIEKTUAK	NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
BERDINTASUNERAKO EGITURA	3.1. Udalaren organigraman Berdintasun Unitatearen kokapena aztertzea, Berdintasun Unitatearen forma egokiena (Unitatea, Zuzendaritza, Zerbitzua...) erabakitzeko. (AN)				
	3.2. Egituran, Emakumeen Etxea ikusaraztea. Adibide moduan, “Berdintasuna eta Emakumeen Etxea” zerbitzua/zuzendaritza... (AN)				
	3.3. Berdintasuneko pertsonalaren beharrak diagnostikatzea. Berdintasun Unitatea handitzea eta/edo sailetako berdintasunerako erreferenteak sortzea baloratzea. Horren arabera, lanpostu berriak sortzea.				
	3.4. Udal Enpresa eta erakunde autonomoetan berdintasunerako erreferenteak sortzea.				
ARAUDIA	3.5. Berdintasunerako Ordenantza onartzea. (AN)				
KOMUNIKAZIOA	3.6. Berdintasun Saileko eta Emakumeen Etxeko komunikazio plana gauzatzeko baliabideak bideratzea. (AN)				

ABORDATZE-TASA	%50
NABARMENDUTAKO NEURRIAK	- Berdintasun Sailak langileen barne-egoeraren azterketa egin du. Teknikari bat eta administrari bat behar dela ondorioatu da. - Berdintasunerako berezko atalburutza sortu da. - Udal enpresek haien barne plana garatzeko, Berdintasun Batzordeak sortu dituzte.
JORRATU GABEKO NEURRIAK. ARRAZOIAK	3.2. eta 3.5. neurriak ez dira garatu politikoki lehentasun estrategiko gisa ikusi ez delako. 3.6. neurria ez da garatu, baliabide faltagatik

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA	LORTUTAKO BALIOA
• Berdintasun Unitatearen forma udaleko organigraman	• Berezko atala/zerbitzua	• Berezko Atala
• Sortutako berdintasun teknikari lanpostu berriak, guztira	• 2	• 1 (Atalburuaren lanpostua sortu da)
• Emakumeen Etxeko arduradun teknikoaren lanpostua sortzea	• Bai	• Ez
• Berdintasunerako erreferenteak sortzen dituzten erakunde autonomoak	• 2	• 1
• Ordenantza onartzeagatik, martxan jarritako prozesu berrien kopurua	• 2	• 0
• Udal mailan, gutxienez Planaren 3 proiektu-emitza ezagutzen dituzten langileen %a (inkesta)	• %50	• Ez da inkesta bideratu

EMAITZA NAGUSIA

- Berdintasunerako saileko egitura kontsolidatzen ari da: 2024an 4 berdintasun teknikarien lanpostuak kontsolidatu dira, berdintasun teknikari lanpostu bat sortu da eta 2024ko bukaerara edo 2025eko hasierarako atalburua propioa izango du.

ZAILTASUNAK

- Baliabide falta, eta horrek eragina izan du Plana garatzerako garaian.
- Berdintasun Unitatearen egonkortasun falta.
- Planaren bukaerarako lanpostuak sortu arren, lanpostu 1 hutsik gelditu da eta atalburuaren izendapenarekin beste bat geldituko da hutsik.

IKASITAKOA

- Egiten ziren gauzak mantendu dira baina baliabide gutxiagorekin ezin dira gauza berriak martxan jarri.

IDENTIFIKATUTAKO BEHARRAK

- Beste 2 berdintasun teknikari Emakumeen Etxerako
- Berdintasun teknikari bat Lehendakaritza.
- Pandemian murriztutako baliabide ekonomikoak berreskuratzea
- Udalaren egituraren, Berdintasun Unitatea beste toki batean kokatuta egotea.
- Berdintasun politikak zeharka lantzeko egitura egokiak.

GOBERNU ONA: TXERTATUTAKO NEURRIAK

Udalaren funtzionamenduan integratutako eta sistematizatutako gobernu onerako 13 neurriak garatu dira. Hala ere, aipatutako antolamenduari buruzko hausnarketan, 10. neurria atzeratzea erabaki zen. Berdintasun-arloak beste arlo batzuekin martxan daukan lan egiteko prozedura praktika egokia dela baloratzen da: urtero arloekin lana planifikatu, kontuak eman, memoriak eta jarraipen-txostenak egin eta zabaldu, solaskideekin lan-saioak antolatu...

NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
1. Kontratazioan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan klausula sozialak sartzea				
2. “Udal Aurrekontuen analisia, genero ikuspegik” txostena egitea				
3. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak egitea				
4. Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, datu bereiztuak... erabilera bermatzea				
5. Berdintasunerako prestakuntza jasotzea eta antolatzea Udal Formazio Planean				
6. “Zeharkakotasunaren lantaldean” parte hartzea. Udaleko zeharkakotasun estrategian lagungarri izatea				
7. Planaren batzorde teknikoaren kudeaketa				
8. Berdintasunerako arloen arteko Batzorde Politikoa eta Teknikoaren kudeaketa				
9. Langileen berdintasun batzordea dinamizatzea				
10. Beste instituzioekin sare-lana (AN)				
11. Berdintasunerako Planaren jarraipena egitea				
12. Ikasle eta ikertzaileen elkarriketei erantzutea berdintasun proiektu eta ikasketetarako				
13. Hiritarrak egiten dituzten eskaerak, kexak eta gomendioak erantzun				

4. PROIEKTU-EMAITZA: EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA

Proiektu honek 8 neurri jasotzen ditu, bi azpiproiektutan sailkatuta. 8 neurrietatik, urte hauetan, 6 garatu dira (%75).

AZPIPROIEKTUAK	NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
ESTRATEGIA	4.1. Kogestio egitura indartzea.				
	4.2. Espazio berri eta handia lortzea, espazio-denbora-edukietan irisgarria izango dena.				
	4.3. Udal kudeaketa tresnetan Emakumeen Etxea txertatzea.				
	4.4. Emakumeen Etxearen datu-basea.				
	4.5. Zerbitzu eta baliabideen kudeaketa hobetzea: baliabide gehiago lortzea, datuak jasotzea, memoria, kontratazioak...				
ERAGINA	4.6. Emakumeen bizitzan Emakumeen Etxeak duen eraginari buruzko ikerketa egitea. (AN)				
	4.7. Emakumeen Etxean egiten den lanaren balio ekonomikoa aztertzeke ikerketa egitea. (AN)				
	4.8. Udal langileekin Emakumeen Etxearen erabilera eta deribazioa lantzeko saioak egitea. (AN)				

ABORDATZE-TASA	%75
NABARMENDUTAKO NEURRIAK	- Emakumeen Etxeko datu-basea diseinatu, garatu eta abian jarri. - Kogestioa indartzea eta estrategikoago egitea saiatzen ari dira. Bileren maiztasuna sistematizatu da.
JORRATU GABEKO NEURRIAK. ARRAZOIAK	4.2. eta 4.7. ez direla garatu; erabaki politikoak dira. Hala ere, 4.2. neurriari dagokionez, 2023an, Amara Zaharrean 1000m2ko lokal berri bat eskaintzearen konpromisoa hartu zen, eta Emakumeen Etxeko elkarteak obraren diseinuan parte hartzearena.

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA	LORTUTAKO BALIOA
• Espazio berria eta handia izatea	• BAI	• EZ
• Emakumeen Etxearen aurrekontuaren igoera	• %10	• %6
• Elkartearen bazkide kopurua handitzea	• %25	• %50
• Emakumeen Etxea ezagutzen duten Donostialdeko emakumeen %	• %50	• Ez dago daturik
• Udaleko langileek Emakumeen Etxeari buruzko gogobetetze maila	• 7	• Ez dago daturik
• Emakumeen Etxeko erabiltzaileen gogobetetze maila	• 9	• Ez dago daturik

EMAITZA NAGUSIAK

- Elkartea eta Udaltzaren arteko koordinazioa sistematizatu egin da.
- 2023tik aurrera, arratsaldetan jardunaldi erdiko pertsona bat.

ZAILTASUNAK

- Hartutako konpromisuak gauzatzeko zailtasunak
- Baliabide falta: etxe handiago eta duina
- Egonkortasun falta

IKASITAKOA

- Emakumeen Etxearen beharra, emakumeentzat espazio seguru bat suposatzen baitu.
- Kogestioaren kudeaketa-formula eraldatzailea da bere horretan.

IDENTIFIKATUTAKO BEHARRAK

- Kogestiorako koordinazio gehiago.
- Emakumeen Etxearen jarraipena.
- Lanpostuen egonkortasuna: koordinazioa hobetzeko eta beti azken orduan ematen diren larrialdietara ez dedikatzeko.
- Ikuspegi estrategikoa eta bateratua Emakumeen Etxea Elkartarekin.
- Etxe berria.

5. PROIEKTU-EMAITZA: DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA

Proiektu honek 10 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 10 neurrietatik, 9 garatu dira (%90). Planaren ezarpenean beste neurri bat sortu da, Ekialde Barrutiko Planaren ezarpena. Hau kontuan izanda, abordatze tasa 90,9%koa da.

AZPIPROIEKTUAK	NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
NESKA ETA EMAKUME GAZTEENTZAKO PROGRAMAK	5.1. Neska eta emakume gazteentzako kultura, aisialdi, sexualitate eta abarren programak eskaintzea.				
	5.2. Hezkidetzarako patioak. Ikastetxeetako patioetan Udalak hobekuntzak eta mantenu lanak egiten dituenean, genero ikuspegia txertatzea (beste espazio batzuk sortu: txoko lasaiak, berdeak, baratza, kirol praktika anitzak egitekoak...). (AN)				
EMAKUMEAK, SOLASKIDE	5.3. Berdintasunerako dirulaguntzen oinarriari buruz hausnartzea: publiko objektiboa, puntuazio-irizpideak... (AN)				
	5.4. Udalaren diru-laguntzen fitxetan jasotako datuak aztertzea. (AN)				
	5.5. Dirulaguntzen fitxetan jasotako datuak aztertu eta gero, jasotzen diren datuak berrikustea. (AN)				
	5.6. Emakumeek edo emakume-elkarte nagusiek beste Departamentu batzuek bultzatutako prozesuetan parte har dezaten proposatzea. (AN)				
	5.7. Udal-kontseiluetako urteko plangintzan genero ikuspegia txertatzea. (AN)				
	5.8. Emakumeek Udalari aurkeztutako eskaerak aztertzea (kexak, iradokizunak) eta dagozkien departamentuko kudeaketa-planetan sartzea. (AN)				
EKIALDEKO BARRUTIKO BERDINTASUNERAKO PLANA EGIN	5.9. Ekialde Barrutiko emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa osatzea.				
	5.10. IV. Planaren egokitzapen bat lantzea.				
	5.11. Ekialde Barrutiko Planaren ezarpena.				

ABORDATZE-TASA	%90,9
NABARMENDUTAKO NEURRIAK	• Indarkeria matxista nerabezaroan jardunaldiak. Nerabeekin lan egiten duten profesionalentzat dira, finkatu egin dira eta errferentziazko ekitaldi bat dira. • Gazteekin egindako jarduerak: Kontadores, Martx up, Inspira Steam... • Ekialde Barrutiko diagnostikoa, planaren diseinua eta planaren neurrien garapena, eta hauen artean, jabekuntza eskola martxanegotea.
JORRATU GABEKO NEURRIAK. ARRAZOIAK	• 5.5. ez da garatu, baliabide ekonomiko eta pertsonalen faltagatik

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA	LORTUTAKO BALIOA
• Parte-hartze prozesuetan, emakume solaskideen %a	• %40-%60	• Ez dago daturik
• Neska eta emakume gazteek Donostiako Udalak bultzatzen dituen ekintzei buruzko gogobetetze maila	• 7	• Ez da ezagutzen
• Ekialdeko Barrutiko Berdintasunerako Planaren ezarpenaren %a	• %80	• %58,3
• Ekialdeko Barrutiaren kudeaketan, emakumeen parte-hartzea	• %40-%60	• %100,0
• Donostia feminismoaren aldeko hiria ote den emakumeen pertzepzioa (inkesta)	• 7	• Ez da inkesta bideratu
• Donostia feminismoaren aldeko hiria ote den emakume turisten pertzepzioa (inkesta)	• 7	• Ez da inkesta bideratu

EMAITZA NAGUSIAK

- Gazteekin egin den lankeeta.
- Ekialde Barrutiko proiektua.
- Partaidetzarekin batera aurrerapausoak eman dira 10 dirulaguntza lerrotan eta berdintasun irizpide batzuk adostu dira. Honi esker, elkarteei prestakuntza eman zaie berdintasuna haien proiektuetan txertatzeko.

ZAILTASUNAK

- Dirulaguntza zuzenetan berdintasuna txertatzeko irizpide eza.

IKASITAKOA

- Berdintasunerako politikak deszentralizatzea aukera.
- Emakumeen aniztasunaz jabetu dira, kolektibo zehatzen beharrak hobeto identifikatu dituzte (auzoak, gazteak...).
- Beste agente sozialekin koordinatzeko beharra.

IDENTIFIKATUTAKO BEHARRAK

- Udalaren egitura hobetu.
- Udal dirulaguntzak kudeatzea.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA: TXERTATUTAKO NEURRIAK

Udalaren funtzionamenduan integratutako eta sistematizatutako emakumeen ahaldunderako 7 neurriak garatu dira. Hala ere, aipatutako antolamenduari buruzko hausnarketan, 4. neurria atzeratzea erabaki zen.

NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
1. Kanpainak garatzea				
2. Diru-laguntzen kudeaketa				
3. Emakumeen Etxeko eguneroko kudeaketa				
4. Beste Emakumeen Etxekin sare-lana (AN)				
5. Emakumeak eta Hiria Foroa dinamizatzea				
6. Donostiako berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseilua dinamizatzea				
7. Diru-laguntzetan, hitzarmenetan eta kontratuetan berdintasunerako klausulak sartzea				

6. PROIEKTU-EMAITZA: ERABATEKO PREBENTZIOA

Proiektu honek 5 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 5 neurrietatik, urte hauetan, 3 garatu dira (%60).

AZPIPROIEKTUAK	NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
AUTODEFENTSA FEMINISTA	6.1. Autodefentsa feministako tailerrak zabaltzea denboran eta espazioan.				
	6.2. Indarkeria saihesteko pack bat garatzea ikastetxeentzat: autodefentsa neskentzat eta maskulinitateak mutilentzat.				
	6.3. Prestatzaileen prestakuntza antolatzea, talde autonomoak sortzeko.(AN)				
ADINEKO EMAKUMEAK	6.4. Adineko emakumeentzako dauden programetan sentibilizazio espazioak sortzea: informazio guneak, kafeak... (AN)				
DETEKZIO GOIZTIARRA	6.5. Indarkeria arrisku egoerak identifikatzea.				

ABORDATZE-TASA

%60

NABARMENDUTAKO
NEURRIAK

- Autodefentsa feministako ikastaroak. Orokorrak eta kolektibo espezifiko batzuei (Gazteleketako gazteak, Plus 55 programako emakumeak, udaltzaingoak...) zuzenduak antolatu dira.
- Ikastetxeetan indarkeria matxista kasuen detekzio lanketak
- Haur eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko protokoloa

JORRATU GABEKO
NEURRIAK ARRAZOIAK

- 6.3. eta 6.4. ez dira garatu, baliabide ekonomiko eta pertsonalen faltagatik

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA	LORTUTAKO BALIOA
• Esku hartzen den auzoen %a	• %75	• %0
• Autodefentsa feminista, indarkeriaren kontrako estrategia bezala baloratzea (inkesta)	• 7	• Ez da inkesta bideratu
• Arrisku-egoerak identifikatzeko finkatutako espazioak izatea	• BAI	• BAI
• Indarkeria matxistak adineko emakumeei ere eragiten dielako pertzepzioa (inkesta)	• 7	• Ez da inkesta bideratu

EMAITZA NAGUSIA

- Erreparazioaren ikuspegitik arreta egiteko emateko baliabide eta gaikuntza gehiago
- Indarkeria aurkako mezua jendartean txertatuago

ZAILTASUNAK

- Adierazle batzuk neurtzea.
- Errealitatea ondo ezagutzea.

IKASITAKOA

- Indarkeria matxistaren lanketa lehentasuna da berdintasun politketan.
- Arreta hobetzeko ezinbestekoa da formakuntza eta elkarlana.
- Berdintasun politiken zeharkakotasuna landu dute indarkeriari lotutako neurriak lantzearekin.

IDENTIFIKATUTAKO BEHARRAK

- Indarkerian espezializatua dagoen berdintasun teknikaria.
- Ikerketak, inkestak, datu bilketak egin errealitatea hobeto ezagutzeko.

7. PROIEKTU-EMAITZA: ERREPARAZIO INTEGRALA

Proiektu honek 10 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 10 neurrietatik, urte hauetan, 6 garatu dira (%60).

AZPIPROIEKTUAK	NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
ERREPARAZIOA DEFINITZEA	7.1. Barne hausnarketa egitea erreparazioari buruz. (AN)				
ESKU-HARTZE PROZESUA BERRIKUSTEA, ERREPARAZIOAREN IKUSPEGITIK	7.2. Emakumeen Etxean egiten dena ikusaraztea, eredu gisa balio dezan. (AN)				
	7.3. Indarkeria matxistaren kontrako udalaren erantzukizuna eta ekimenak erreparazioaren ikuspuntutik berrikustea. (AN)				
	7.4. Emakumeentzako harrera-baliabide espezifikoak eta seguruak eskaintzea. (AN)				
ERREPARAZIO SINBOLIKOA	7.5. Espazio publikoetan erreparazioa egitea. (AN)				
	7.6. Indarkeriari aurre egin dioten emakumeak indarkeria matxistaren aurkako udal politikan eragile aktiboak izatea. (AN)				
	7.7. Ahalduztze fisikoko programak eskaintzea. (AN)				
	7.8. Adierazpen eta harreman publikoetarako protokoloa osatzea eta aplikatzea. (AN)				
	7.9. Klean egiten diren gaitzespen adierazpenak Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluarekin eta Mugimendu Feministarekin koordinatzea. (AN)				
	7.10. Jaietan mugimenduen sozialen, elkarteen, udalaren eta bestelako instituzio batzuen artean informazioa partekatze eta esku-hartzeak kudeatzeko krisi mahai bat sortzea. (AN)				

ABORDATZE-TASA	%60				
NABARMENDUTAKO NEURRIAK	- Gorputz jabekuntzaren bitartez indarkeria matxistari aurre egiteko jarduerak. - Indarkeriaren aurrean esku hartzeko gidaren aurkezpena elkarreetan.				
JORRATU GABEKO NEURRIAK ARRAZOIAK	7.3, 7.5, 7.6 eta 7.9 ez dira garatu, baliabide ekonomiko eta pertsonalen faltagatik				
EMAITZEN ADIERAZLEAK		HELMUGA BALIOA	LORTUTAKO BALIOA		
Emakumeek prozesu osoaren izaera erreparatzaileaz egiten duten balorazioa		7	Ez dago daturik		
Adituek eta udal langileek Ikuspegi erreparatzailearen integrazio-mailaz egindako balorazioa		7	Ez dago daturik		
EMAITZA NAGUSIA		Indarkeriaren aurrean ematen den erantzuna eta laguntza hobetu dira.			
ZAILTASUNAK	- Errreparazioa lurreratzeko zailtasuna. - Ez egoteak kanalak emakumeen ahotsak, bizipenak... jaso eta entzuteko.	IKASITAKOA	Prebentzioari atentzioari bezain arreta eta indarra eman behar zaio.	IDENTIFIKATUTAKO BEHARRAK	- Eraldaketarako agenteak sustatu behar dira. - Baliabideak erreparazioak. - Emakumeen ahotsak entzun eta integratu.

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK: TXERTATUKO NEURRIAK

Udalaren funtzionamenduan integratutako eta sistematizatutako indarkeria matxista aurre egiteko 6 neurriak aurreikusten ziren. Denak garatu dira (%100,0).

NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
1. Indarkeriaren kontrako kanpainak antolatzea				
2. Esku-hartze prozesuaren etengabeko hobekuntza				
3. Erakunde arteko protokoloaren jarraipena. Mahaia tekniko eta politikoa				
4. Indarkeria matxistaren kontrako prestakuntza Udal Formazio Planean				
5. Puntu Kritikoak (AN)				
6. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak identifikatzea				

8. PROIEKTU-EMAITZA: KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK

Proiektu honek 8 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 8 neurrietatik, urte hauetan, 6 garatu dira (%75).

AZPIPROIEKTUAK	NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
ZAINTZEN PLANA	8.1. Zaintzen Talde Motorra sendotzea. (AN)				
	8.2. Zaintzari buruzko hausnarketa bultzatzea. (AN)				
TALENTU EZKUTUA AZALERATU	8.3. Tituluen eta esperientzien homologazioa, CV-ak egitea eta lanaren bilaketa erraztea.				
	8.4. Egindako ikasketen ibilbide profesionalari berriro heltzeko proiektua martxan jartzea.				
	8.5. Belaunaldien arteko proiektua martxan jartzea eguneroko bizitzarekin lotutako talentua azaleratzeko. (AN)				
BERDINTASUNERAKO PLANAK ETA SOLDATA ARRAKALA	8.6. Udal enpresek berdintasunerako planak garatzea.				
	8.7. Udalak eta udal enpresek soldata arrakalari ekitea. (AN)				
	8.8. Hiriko soldata-arrakalaren diagnostikoa egitea kategoria ezberdinak gurutzatuz. (AN)				

ABORDATZE-TASA	%75
NABARMENDUTAKO NEURRIAK	• “Iguálate” zerbitzua. Ikasketak homologatzeko laguntza atzerrian egindako ikasketen tituluak baliztatzeko aholkularitza eta laguntza. • Emaktiva Gizarte-zaugarritasun egoeran dauden emakumeei gizartean eta lan-munduan txertatzeko programa. • Udal enpresek (DBUS, Donostia Kultura Donostia Turismoa, Musika eta Dantza Eskola, Sustapena) haien berdintasun plan espezifikoak martxan dute.
JORRATU GABEKO NEURRIAK ARRAZOIAK	• 8.7 eta 8.8 neurrik ez dira martxan jarri, politikoki lehentasun estrategiko gisa ikusi ez delako

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA	LORTUTAKO BALIOA
• Zaintza Talde Motorrak zaintzen inguruan egindako lanaren balorazioa (inkesta)	• 7	• Ez da inkesta bideratu
• Zerbitzuetara hurbildu eta kalitatezko lanpostua lortzen duten emakumeen %a	• %50	• Ez da datua ezagutzen
• Zerbitzuetara hurbildu eta titulua edo ziurtagiria lortzen duten emakumeen %a	• %50	• 780 emakume eta 23 ez bitarrek arreta jaso dute Ez da ezagutzen zenbat lortu dute titulareen homologazioa
• Soldata arrakala murrizteko estrategia adostea	• BAI	• EZ
• Berdintasunerako plan bat duten udal enpresen %a	• %100	• %67,7
• Udal enpresen berdintasunerako planen ezarpen maila	• %80	• %80

EMAITZA NAGUSIA

- Berdintasun-politikak garatzea udal-enpresetan.

ZAILTASUNAK

- Ez dago genero ikuspegitik zaintzen udal politikarik

IKASITAKOA

- Udal-enpresetako argazkia izatearen garrantzia, datuen bilketa eta banaketa.

IDENTIFIKATUTAKO BEHARRAK

- Udal-enpresen artean, arazoei eta eztabaidei batera heltzea, tresnak eta baliabideak partekatzea...
- Udal-enpresen planetan erakunde kultura aztertzea, lidergoaren inguruan lanketa egitea.

EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO: TXERTATUKO NEURRIAK

Udalaren funtzionamenduan integratutako eta sistematizatutako 3 neurriak garatu dira. Hala ere, aipatutako antolamenduari buruzko hausnarketan, 2. neurria atzeratzea eta murriztea erabaki zen.

NEURRIAK	2020 / 21	2022	2023	2024
1. Etxeko Langileei aholkularitza zerbitzua ematea				
2. Donostiako lagunkoia, Plus 55 koordinazioa (AN/MN)				
3. Emakumeentzako enplegu-programak				

Guztira, hauek dira planaren, eta esku-hartze ardatz zein proiektu bakoitzaren abordatze-tasak:

ESKU-HARTZE ARDATZA	PROIEKTU-EMAITZA/TXERTATUTAKO NEURRIAK	Jorratutako/ Aurreikusitako NEURRIAK	ABORDATZE TASA	
GOBERNU ONA	AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK	9/11	%81,8	%70,7
	IKUSPEGI INTERSEKZIONALA	4/11	%36,4	
	PLANAREN IRAUNKORTASUNA	3/6	%50	
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	13/13	%100	
EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA	6/8	%75	%88,5
	DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA	10/11	%90,9	
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	7/7	%100,0	
INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	ERABATEKO PREBENTZIOA	3/5	%60,0	%71,4
	ERREPARAZIO INTEGRALA	6/10	%60,0	
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	6/6	%100,0	
EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO	KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK	6/8	%75	%81,8
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	3/3	%100	

%76,8

Alde batetik, azpimarratu behar da **planaren betetze-maila ez dela iritsi %80ra**, %76,8an baitago. 8 proiektutatik, garapen-maila handiena izan duen proiektua 5.a da, *Donostia, feminismoaren aldeko hiria* (%90,9), eta heltze-maila txikiena duena 2.a, *Ikuspegi intersekzionala* (% 36,6). Ardatzen arabera, garapen handiena duen ardatza *Emakumeen ahalduntzea* izan da (%88,5), eta txikiena, *Gobernu Ona* (%70,7). Datu hau oso baldintzatuta dago baliabide eta langile nahikorik ez eduki bitartean 2. proiektuari ez heltzeko erabakiarekin.

Atzeratzea edo murriztea erabaki ziren neurriak kontuan hartzen ez badira, soilik bi neurri lirateke ez jorratutakoak: 1.8. neurria <<*Kudeaketa-planetan jasotako berdintasunerako ekintzak aurrekontuan sartu diren aztertzea*>> eta 4.2. neurria <<*Espazio berri eta handia lortzea, espazio-denbora-edukietan irisgarria izango dena*>>.

Bestalde, esanguratsua da, garapen-maila handiagoarekin edo txikiagoarekin, **integratutako neurrien %100ari heltzen jarraitu zaiola**, eta horrek neurri horiek legezko aginduekin eta hein handi batean sistematizatutako prozesuekin oso lotuta daudela adierazten du.



ONDORIOAK

Amaitzeko, hurrengo Berdintasunerako Planerako abiapuntu izan nahi duten gogoeta batzuk bildu dira, ondorio gisa.

- 1 MAINSTREAMINGa.** Berdintasunerako gobernantza, arlo guztiak berdintasun-politiken bultzadan eta ezarpenean inplikatzeko gakoa izan da. Aurrekontuak, genero-eraginaren txostenak, berdintasunerako klausulak eta trebakuntza bultzada egiteko tresna bihurtu dira, eta tresna horiek indartu egin behar dira, hasierako eta aplikatutako trebakuntzarekin, tresnen arteko kohesioarekin eta sortutako baliabideen aprobetxamenduekin, barne-jarraibide argiekin, besteak beste.
- 2 TXERTATUTAKO NEURRIEN PISUA.** Udalak eta, zehazki, Berdintasun Sailak urteak daramatzate IV. Planean deitu ziren txertatuko neurriak bultzatzen. Neurri hauek kasu gehienetan bete beharreko lege-aginduei erantzuten diete eta garapen-maila handia dute, beraz neurri horiei eusteak Plana ezartzeko baliabideen ehuneko handia suposatu du. Proiektu berritzaileak bultzatzeko, hala nola intersektzionalitatea edo indarkeriaren erreparazioa, baliabide gehiago jartzea behar da, neurri horietako batzuen erantzukizuna helaraztea eta/edo neurri integratuen garapenetik abiatuta berrikuntzak proposatzea. V. Planari begira, erronka nagusietako bat izango da.
- 3 GERO ETA PLAN GEHIAGO.** Arau-aginduz, gaur egun, enpresa eta erakunde autonomo gehienek neurriak hartzen dituzte euren esku-hartzea ahalik eta gehien berdintasunean garatzeko, bai plantillari dagokionez, bai jarduerari dagokionez, berdintasun-plan propioen bidez. Horretarako, Udalaren planarekin koordinazioa beharrezkoa ote den pentsatu behar da, eta, hala bada, koordinazioa nola antolatu. Bestalde, erakunde bakoitza bere plana lantzen ari da modu autonomoan, baliabideak, tresnak edo bestelako ekimenak partekatu gabe.

- 4 **ERREFERENTEAK.** Funtsezkoak izan dira IV. Plana ezartzeko, haien arlo, enpresa eta erakundeetan lana bultzatzeko. Hala ere, figura hori indartzeko beharra ikusi da, bai kopuruari dagokionez, sail eta enpresa handietan erreferente bat baino gehiago edo batzorde bat behar baitira, bai gaitasunari eta bai euren lan-eremuetan egiten den lana partekatzeko baliabideei dagokienez.
- 5 **ELKARREKIN SORMENA.** Lantalde batzuek ondo funtzionatu dute azken urteetan hainbat gaietan aurrera egiteko: puntu kritikoen mapa, klausula sozialak... Zeharkakotasunean aurrera egiteko, tresnak, ikuspegiak eta prozedurak kohesionatzeko, eta hainbat egoera modu sakonagoan lantzeko, lantaldeak eta hainbat ekimen kokatzeko gaikako espazioak, ikaskuntza- eta esku-hartze-komunitateak eta abar sortzea funtsezkoa dela aipatu da. Arlo gehienek bi-hiru berdintasun jarduera txertatu dituzte euren ohiko lanean, eta urtero errepikatzen dituzte. Esku-hartze horiek hobetzeko eta/edo jarduera berriei ekiteko, gune hauek input gisa erabil daitezke, prestakuntza jasotzeko, produktu bat sortzeko aukera ematen dutelako, etab.
- 6 **EZTABAIDA IKUSEZINAK.** Hainbat arlok berdintasunarekin lotutako antzeko zailtasunak eta erronkak dituzte identifikatuak, baina ez dago zalantza hauek bideratzeko prozesurik, eta azkenean erdibidean geratzen dira. Batzuetan, bakoitza bere aldetik ari da pentsatzen. Hau datu-bilketen hirugarren laukiarekin gertatzen ari da adibidez, arlo askok informazio hori aztertze zailtasuna partekatzen baitute. Lauki hori modu desberdinetan izendatzen da hainbat tresna eta formulariotan, eta ez da jakiten, oro har, nola ustiatu eta azertu behar den. Interseksionalitatearen ikuspegiarekin ere gauza bera gertatzen da, hainbat eremutan lehen urratsak ematen direlako baina gero zailtasunak partekatzen dituztelako ikuspegi hori praktikara eramateko garaian.
- 7 **DESADOSTASUNAK (DIVERGENCIAS).** Gaiak, iritziak eta publiko objektiboak gurutzatzeko ideia jasotzen da, sormen-modu gisa, estrategia berriak sortzeko, diziplina anitzeko ikuspegi batetik pentsatzeko eta hainbat arlo inplikatzeko. Adibidez, suhiltzaileen taldean emakumeak sartzearen eta gazteekin lan egitearen erronkak bateratzea.
- 8 **KOMUNIKAZIOA, PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMATIK HARAGO.** Berdintasunaren aldeko jardueraren komunikazioa Planaren beraren helburu izateari buruz eztabaidatu da. Zer egiten da, zertarako... langileek beren eskumeneko berdintasun-neurrien garrantzia ulertzeari arreta berezia jartzea. Informatzetik komunikatzera pasatzea. Entzuteko espazioak sortzea.

9

KOHESIOA. Neurriak, lan arloak eta planak elkarren artean lotzeko beharra. Neurri batzuek esku hartzeko eremu batean baino gehiagotan eragiten dute. Udal-plan batzuek antzeko errealitateak, ikuspegiak eta edukiak jorratzen dituzte. Garrantzitsua da tresnak bateratzea eta askotariko tresnak aplikatzea errazten duten baliabideak partekatzea. Adibidez, hainbat esku-hartze eremuren datuak eta diagnostikoak izatea tresna desberdinak aplikatzeko abiapuntu komuna da. Funtsezkoa da Berdintasunerako Planak Gobernu Planari eta beste udal-plan batzuei egiten dien ekarpena ikusaraztea.

10

JARRAIPENA ETA EBALUATZEA. Planaren jarraipena egiteko tresna informatiko bat izateko beharra eta premia dago. Interesgarria izan daiteke, halaber, berdintasunerako tresna jakin batzuei buruzko ebaluazio arinak egitea, haien eragina nola hobetu ikusteko; izan ere, batzuetan, garrantzia ematen zaio legea betetzeari, horrekin betetzeko egin behar den txostena edo produktuari, eta, are gutxiago, prozesuari eta produktuaren kalitateari eta eraldatzeko gaitasunari.